

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

# CURSOS DE VERANO UDAKO IKASTAROAK

## Terrorista damutuak. Erronka sozialak, politikoak, juridikoak eta etikoak

**IRAILAK 26**

Nafarroako Museoa. Iruñea.

50 ikaspostu

6 ordu

Nafarroako museoa

Bukatuta

2025ko irailaren 23a arte

Aretoa irisgarria da mugikortasun urria duten pertsonentzat.

Irisgarritasun premiarik baduzu, idatzi [cursosdeverano@unavarra.es](mailto:cursosdeverano@unavarra.es) helbide elektronikora.

Ikastaro honen helburu orokorra da bertaratutakoek ezagutu dezatela damuturik dauden terroristen garrantzi sozial, politiko, juridiko eta etikoa. Horretarako, lau hitzaldi eta mahai-inguru bat proposatzen dira. Mahai-inguru horretan, zenbait aldetatik aztertuko da figura horren eragina, eztabaida ugari piztu eta hausnarketa sakona eskatzen baitu barkamenaren, gizarteratzearen edo iraganarekin dugun harremanaren esanahiari buruz. Horretarako, terrorista damutuaren figurari helduko zaio lehenbizi, arreta berezia jarrita figura hori nola jasotzen den indarkeriaren osteko testuinguruetan. Bigarrenik, ETako

zenbait kide organizazio horretatik nola irten ziren azalduko da, eta arreta berezia emanen zaie damuak zeharkatutako esperientziei. Hirugarrenik, terrorismoko delituei juridikoki nola heltzen zaien eta delitu horiek gizarteratzearekin zer lotura duten aztertuko da. Azkenik, damututako biktimagileen testigantzaaren dimentsio etikoan sakonduko da, eta aztertuko da elementu horrek nola indartu ditzakeen terrorismoa deslegitimatzeke hezkuntza-ahaleginak. Hitzaldien ostean, mahai-inguru bat egingen da zenbait biktimagile damutuekin.

## **NORENTZAT**

Unibertsitateko ikasleak.

Jende guztia.

## **HELBURUAK**

Helburu nagusia:

- Terrorista damutuaren figura aztertzea, indarkeria osteko testuinguruetan haren presentziak dakartzan erronka sozial, politiko, juridiko eta etikoak adieraziz.

Helburu espezifikoak:

- Terrorista damutuaren figuraren eragin sozial eta politikoan sakontzea.
- Damua nola sortzen den jakitea, beren indarkeria-iraganarekin kritikoak diren pertsonen esperientziei arreta jarritz.
- Identifikatzea terrorismoko delituen kasuetan zuzenbide penalak birgizarteratzeari nola heltzen dion eta norbaiti damutzeke eskatzeak zer ondorio dituen.
- Baloratzea damutuen testigantzak zer gaitasun duen indarkeriari zilegitasuna kentzeko.
- Borroka armatua arbuiatzearekin lotutako bizipenak eta itxaropenak ezagutzea zenbait terrorista damutuen ikuspegitik.

## **IKASTAROAREN ZUZENDARIA(K)**

Marta Rodríguez Fouz. I-Communitas Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutua (NUP).

Eider Nafarrete Bilbao. Valentín de Foronda Institutua (UPV/EHU).

## **OSTIRALA 26 IRAILA**

9:30 - 10:00

### **Inaugurazioa**

Marta Rodríguez Fouz. *Ikastaroaren zuzendarikidea*

Juan Francisco Benito. *Terrorismoaren Biktimen Fundazioaren burua.*

Gorka Angulo Altube. *Terrorismoaren Biktimak Oroitzeko Zentroaren Komunikazioko arduraduna.*

Juan M<sup>a</sup> Sánchez Prieto. *I-Communitas Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutuko zuzendaria.*

Martín Zabalza Arregui. *Nafarroako Gobernuko Memoria eta Bizikidetzako zuzendaria.*

10:00 - 11:00 Hitzaldia

### **Terrorista damutuaren figura. Eragin soziala eta politikoa.**

Marta Rodríguez Fouz.

Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutuko ikertzailea eta NUPeko Soziologiako eta Gizarte Laneko Saileko irakaslea.

11:00 - 12:00 Hitzaldia

### **ETAtik ateratzea. Esperientziak eta espektatibak.**

Eider Nafarrate Bilbao.

Valentín de Foronda Gizarte Historiako Institutua (UPV/EHU).

12:00 - 13:00 Hitzaldia

### **Terrorismoko delituak eta gizarteratzea.**

Gema Varona Martínez.

KREIko zuzendaria. KREIko ikertzaile doktore iraunkorra.

16:00 - 17:00 Hitzaldia

### **Biktimagile damutuaren testigantzen dimentsio etikoa.**

Izaskun Sáez de la Fuente Aldama.

Deustuko Unibertsitateko Etika Aplikatuko Zentroko irakaslea eta ikertzailea.

17:00 - 18:30 Hitzaldia

Modera: Sergio García Magariño. I-Communitas Gizarte Ikerketa Aurreratuko

Institutuko ikertzailea eta NUPEko Soziologiako eta Gizarte Laneko Saileko irakaslea.

## **Biktimgile damutuak**

Teo Uriarte y Ion Aldalur, ETako kide ohiak.

## **ANTOLATZAILEA**

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

## **BESTE ANTOLATZAILE BATZUK**

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroaren Fundazioa; Terrorismoaren Biktimen Fundazioa; I-Communitas Gizarte Ikerketa Aurreratuko Institutua.

# upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



**NAVARRA † NAFARROA**  
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua





## **FINANTZATZAILEA**

Fundación Centro Memorial de las Víctimas del Terrorismo y Fundación de Víctimas del Terrorismo